

txintxarri

Europarako atek noiz irekiko zain da Chios

Zaporeak proiektuarekin Greziako Chios uharteko errefuxiatuekin hilabete igaro du Nerea Arteaga herritarrek. / 6-9

NEREA ARTEAGA

Sei dantza sari

Amaia Gonzalez Caballerok Munduko dantza txapelketatik sari uzta oparoa ekarri du / 5

Larriki gaixo dauden
presoen alde
mobilizatzeko deia
luzatu die Sarek
herritarrei / 3

Arteaga II Promozio
Txapelketako
finaletik oso gertu da
ostiralean Michelin
irabazi ondoren / 12

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39
LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80
Tel/Faxa: 943 37 25 21

Etxeko detaile txikientzako diseinu zainduenak

**mAntra
LED aplikeak**

NIESSEN
etxe-mekanismoak
- Etengailuak, argi-erregula-
doreak, telefono-toma, tele-
bista-toma, entxufe eta usb
sarrerak...



**MAiTE**
ESTETIKA ARETOA

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

*Aitatxo,
har ezazu egun bat
zuretzako!*

Eskuratu gure tratamenduak
opari txartel moduan,
oparitu gutzi bat!
Zerbitzu mistoak

Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma



Larunbateko aurkezpen ekitaldiaren ostean talde-argazkia atera zuten bertaratutakoek. TXINTXARRI

Erantzutea besterik ez da falta

Maiatzaren 7an Lasarte-Oriara iritsiko den olatuak ez du galdera bakarra ekarriko erantzuteko, bi baizik. Lasarte-Oriako Gure Esku Dago egitasmoko Loratu taldeak aurkeztu zituen larunbatean Brigitarren plazan, hainbat herritarren aurrean

Iñigo Gonzalez

'Erabakitze'ko dagokizun eskubidea erabili nahi al duzu interes publikoko gaietarako?'. Hori izango da lasarteoriatarrek maiatzaren 7an erantzun beharko duten lehenengo galdera, baina ez bakarra.

Aurreneko horretan baiezkua emanaz gero, honako hau etorriko da gero: 'Zure erantzuna baiezkua bada, izan nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra?'.

Azken hilabeteetan gogotik lan egin eta hausnartu ondoren, Lasarte-Oriako Gure Esku Dago dinamikako 'Loratu' taldeak larunbatean aurkeztu zituen hemendik bi hilabete eskasera herritarrek erantzun ahal izango dituzten galderak, Brigitarren plazan, hainbat herritarren aurrean egin zuten aurkezpena.

Maidar Seguroa kazetariak aurkezpen txiki bat egin zuen aurrena. Ondoren, ekitaldira bertaratutako herritarrek

'Txoria txori' abesti ezaguna kantatu zuten.

Sarreratxo txiki horren ostean, batzorde sustatzaileko kide Jose Carlos Carrasco eta Bea Egizabalek hartu zuten hitza, maiatzaren 7rako bi galdera horien hautaketa prozesua azaltzeko. Ondoren, banan bana, hainbat herritar gerturatu dira Brigitarren komentuko hesietako batean zegoen panel erraldoiarengana, banan bana bi itaunak estaltzen zituzten 'Erabaki' plakatxoak kendu eta bi galderak agerian uzteko. Kendutako plakatxo horiek hautestontzi erraldoi batean sartu zituzten.

Aurkezpen ekitaldia bukatzeko, denak elkartu,

**BI GALDERA
ERANTZUN BEHARKO
DIRA GUREAN
MAIATZAREN 7KO
GALDEKETAN**

'Erabaki' plakatxoak eskuetan hartu eta talde argazki erraldoia atera zuten, erakutsiz Lasarte-Oria prest dagoela erabakitze eskubidearen aldeko olatuan murgiltzeko.

Maiatzaren 7an iritsiko da aipatu olatu hori herrira. Galderak erantzutea besterik ez da falta.

'Loratu' taldearen bilgunea

Bide batez, Gure Esku Dago kideek jakinarazi zuten, Kale Nagusiko 16.ean dagoen apaiz etxeko lokalean bilduko dela 'Loratu' taldea hemendik aurrera. Harrera ordutegiak hauek izango dira: asteazkenetan, 12:00etatik 13:00era; ostegunetan, 18:30etik 20:00etara; ostiralean 12:00etatik 13:30era eta 18:30etik 20:00etara; eta, larunbatetan, 12:30etik 13:30era. Herritarrak prozesuaren inguruko informazioa zein materiala jasotzera ahalko dira hemendik, baita bolondres lanetarako izena emateko ere.

Pobrezia energetikoa ekiditeko urratsak

Udalak eta Endesak hitzarmena sinatu dute, ahultasun egoeran dauden herritarren babesa bermatzeko

Txintxarri

Astelehenean sinatu zuten hitzarmena jarduneko alkate Lourdes Acevedok eta Endesako ordezkari Miguel Tembouryk. Horren bidez adostu dute, egoera ahulean dauden herritarrek faktura ordaindu ez badute ere, argindar eta gasaren hornidura ez eteteko beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak ezartzea.

Hitzarmen honen helburua da bi erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea eta artikulatzea, fakturak ordaindu

gabe dituzten pertsonentzako gasaren eta argindarraren hornidura etetea saihestu aldera. Ezarritako baldintzak bete beharko dira Udalaren laguntza jasotzeko. Laguntza horiek zorraren zati bat edo zor osoa ordaintzeko erabili ahalko dira. Udalak laguntza jasotzaile posiblearen egoeraren berri eman orduko, Endesak konpromisoa hartzen du hornidura ez eteteko. "Aurretik etenda balego, berriro hornitzeari ekingo da". Enpresak ez du interes, komisio edo gastu gehigarriaren ordainketa eskatuko.

'Go!azen' gurean

Herritarrek (gaztetxoenek bereziki) ederki gozatu zuten 'Go!azen' telesail ezagunaren antzezlanarekin. Igande arratsaldeko bi emanaldiak hasi baino dezente lehenago ilara luzeak sortu ziren Manuel Lekuona Kultur Etxe kanpoaldean.

Gaztetxoenek primeran pasa zuten euren idoloen gorabeherak gertutik ikusten.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Martxoak 8ko aldarria

Emakumearen egunaren inguruan antolatutako hainbat ekintzetan hartu zuten parte lasarteoriatarrek asteburuan, genero-berdintasuna aldarrikatuz: antzerkiak, zunba maratoia, elkarretaratzea Okendon eta emakume-afaria Semblanten.



Lasarte-Oriako Sarek agerraldian mobilizazio gehiago iritsiko direla ere iragarri zuen. TXINTXARRI

Herritarrak mobilizatzen deitu ditu Sarek

Anbulatorioaren aurrean agerraldia egin zuen herriko Sarek asteartean. Herritarrak martxoaren 25ean Bagoaz-ek deitzen duen mobilizazioan, zein Gasteizen apirilaren 8an egingo den manifestazio orokorrean parte hartzera dei egin dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako Sarek agerraldia egin zuen asteartean. Honetan larriki gaixo dauden presoen egoera aipatu nahi izan zuen.

Ixiar Arteagaren hitzetan "azken asteetan, arrazoi ezberdinak medio, larriki gaixo dauden euskal presoen gaia berriro albiste izan da".

Azaldu zuenez, Jaiki Hadi elkartearen azken txostenak "preso hauen kopuruak egondako igoera ikaragarria nabarmentzen zigun, 22 euskal preso direlarik jada zerrenda hau osatzen eta 13 izanik zerrenda hau publikoki osatzen duten izen-abizenak".

Horretaz gain, "Aitzol Gogorza, Ibon Iparragirre, Manu Azkarate eta Oier Gomez-en egoera larria nabarmendu nahi dugu. Oierren bizia arriskuan da. Metastasisidun tumore txarra du eta bere egoerak mediku zaintza handia eskatzen duela azpimarratu dute.

Azkenik azaldu zuten, "gizatasunik gabeko IIPP espetxe erakundearen barne zirkular baten berri ere jakin dugu".

Arrazoi hauek direla eta, "gizartearen aktibazio eta mobilizazio jendetsu baten premia dagoelakoan gaude".

2016. urtearen bukaeran, eritasun larriekin espetxean zeuden euskal presoak 11 ziren eta egun 13 dira. "Azken asteetan Aitzol Gogorza eta Manu Azkarate ospitalizatuak izan dira; Ibon Iparragirre birritan erasotua izan da edota aita bere alboan hiltzen ikusi ondoren, inolako artatze medikurik gabe Madrilera urruntzea jazo da. Gaur Oier Gomez-en egoera larria nabarmendu nahi dugu. Oierren bizia arriskuan da. Metastasisidun tumore txarra du eta bere egoerak mediku zaintza handia eskatzen duela azpimarratu dute.

AKTIBAZIO ETA MOBILIZAZIO JENDETSU BATEN PREMIA IKUSTEN DU SAREK

Presondegian egotearekin batera ezina dela dio mediku txostenak".

Bestalde, aipatutako IIPP espetxe erakundearen barne zirkularrak "gure kezka gehiago areagotzen du bertan larriki gaixorik dauden euskal presoak, soilik heriotzaren atarian aurkitzean askatuko dituztela adierazten da". Gogor salatu zuten azken hau.

Horrela izanda, herritarrak mobilizatzen deitu nahi izan zituzten eta apirilaren 8an Sarek Gasteizen 17:30ean egingo duen mobilizazio orokorrean parte hartzera gonbidatu zituzten lasarteoriatarrek "Larriki gaixorik dauden euskal presoak etxera" lelopean.

Bestalde, datorren astean, martxoaren 25ean Bagoaz-ek deitzen duen mobilizaziora joateko autobusak eskualdetik aterako dira eta dagoeneko izena ematea dago ilargi tabernan.

Mobilizazio gehiago egongo direla ere iragarri zuten Sareko kideek.

NEURE KABUZ



MAILU ARRUTI

Orokortasunean igerian

Afrika, Amerika, Asia, Europa, Ego Amerika, Ipar Amerika, Erdialdeko Amerika (hispano ez esateagatik), Sahara azpikoak, Europa erdialdekoak, mendebalekoak, Baltikokoak, Eskandinaviarrak, indioak, musulmanak, Budistak, Katolikoak denei jarriko genieke adjektibo bat edo gehiago ez?

Katalanak zuhurrak, andaluzak alaiak, alferrak, Kastillanoak "recios" ez dut inoiz oso ondo jakin zer esan nahi duen. Nafarrak kaska-gorrrak, parrandazaleak, jatun onak, Ingelesak puntualak, Alemanak koadrikulatuak, Italianoak builosoak, mafiosoak, harroak.

Euskaldunak: handiak, indartsuak, triperoak, astapetroak, independentista, terrorista e.a. Ez da egia eta ez da justua ezta?

Baina Programa horri buruz zen. Topikoei buruz jaunak eta andreak. Ez erabili hori propio min egiteko. Miren Gaztañaga: Ederki ordaindu beharko duzu zure parte hartzea programa horretan. EITBk emango dizuna baino askoz gehiago zori txarrez.

Zer esateko daude espainolak beraien zinearen historian takillan diru gehien eman duen filma justu honetaz izan bai zen. Euskaldunen eta andaluzen topikoez oinarritu zen "8 apellidos vascos" pelikula. Geroztik tele serie bat egin zuten. Oraindik orain irakurri nuen Donostian grabatuko zutela "N" garren kapitulu sorta.

Zertaz ari zarete?

Telebistan Lanbide eskola

ETB Usurbilgo Lanbide Eskolan izan da Teknopolis saiorako biltegi adimentsuaren grabazioa eginen. Grabazio honen helburua Usurbilgo Lanbide Eskolako Mekanika Alorrak martxan jarritako RFID teknologiaz hornituriko biltegi adimentsua ezagutaraztea izan da. Aurreikuspenak betez gero dokumentala ikusgai izango da apirilaren 8an, 13:30ean ETB1en eta hurrengo egunean 10:00etan ETB2n.



USURBILGO LANBIDE ESKOLA



ADURIZ DE LASARTE, S.A.
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Basurde burua
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



Jesus Zaballosen ausentzian, Lourdes Acevedok zuzendu zuen Udalabatza. TXINTXARRI

Kaporalentzako hizkuntza eskakizuna onartu dute

Sortuko diren 'udaltzain kaporal-agente lehen' lanpostuetan izena eman ahal izateko hirugarren mailako euskara maila eskatuko dute. EH Bilduk, Lasarte-Oriak Ahal Du-k eta EAJ-k onartu zuten astearteko ohiko Udalbatzarrean

Txintxarri

Udaltzaingoan aterako diren lanpostu berrietako hizkuntza eskakizunak onartu zituzten astearteko ohiko Udalbatzan. EH Bilduren, LOAD-ren eta EAJ-ren bederatzi bozkak nahikoak izan ziren proposamena aurrera atera ahal izateko. Aurka PSE-EEren sei ordezkariak bozkatu zuten. Alkate Jesus Zaballos eta

PP-ko ordezkari Alejandro Saenz ez ziren batzarrera azaldu. Hortaz, alkateorde Lourdes Acevedok zuzendu zuen Udalabatzarra.

Zinegotzi aldaketa

Sozioekonomia batzordeko buru Beatriz Juezek kargua utzi eta Nuria Fernandezek hartu zuen testigua aurreko Udalbatzan.

Hori dela eta, batzorde ezberdinetan eman beharreko ordezkari aldaketak onartu zituzten aho batez ordezkariak duten taldeek.

Bestalde, "Udal mailako lankidetzaren hitzarmena toki garapeneraren sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean" Andoaingo Udalarrean eskuordetzea onetsi zuten PSE-

EEK, EH Bilduk eta EAJ-k. Lasarte-Oriak Ahal Du, berriz, abstenitu egin zen.

Beterriko Garapen Agentziak beharko dituen eskumenak eskuratzearekin lotutako delegazioa da.

Iradokizunetarako APP-a

EAJ-k aurkeztuta, Udalarri kexak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko APP bat garatzea onetsi zuten bertaratutako talde guztiek aho batez.

Lasarte-Oriak Ahal Du-ko bozeramaile Arkaitz Nayak azaldu zuen proposamenaren alde zegoela, baina "partehartzea sustatzea helburu" duten beste moziotan EAJ-k edukitako jarrera gaitzetsi zuen. "Esaterako, erraustegiari buruzko galdeketa proposatzen direnean".

EAJ-ko Jon Antxordokik erantzun zion "Udal mailako iradokizunak egitea duela helburu" moziok. Estitxu Alkortak, bere aldetik, "parte hartzea bultzatu nahi duten proposamen zehatzen alde" agertu direla azpimarratu zuen.

Baratze ekologikoak

Lasarte-Oriak Ahal Du-ren proposamenez, Lasarte-Orian baratze ekologikoak sortzearen aldeko mozia onartu zuten aho batez. "Nekazaritza ekologikoa sustatzea eta leku degradatuak errekuperatzea" du helburu, besteak beste.

Hala, Udal Gobernuari eskatu diote erabili daitezkeen lursailak identifikatzeko, erregulazioa garatzeko eta Gipuzkoako "baratze-parkearen" barnean txertatzeko.

Moziorekin ados dagoela adierazi zuen EAJ-ko Antxordokik, baina bere "zalantzak" mahaigaineratu

zituen. Lasarte-Orian baratze horiek aurrera eraman ahal izateko lursailak dauden galdetu zuten. Ahal Dugu-ko bozeramaileak erantzun zion adituen "iritzi postiboa" jaso dutela.

Galdera eta erreguak

Udalbatzarrari amaitzeko talde politikoek eta bertaratutako herritar batzuek euren kezkek eta galderak azaldu zituzten.

EH Bilduko Pablo Barriok Zabaleta Berriko etxebizitzaren egoeraren inguruan galdetu zuen eta Axier Lopezi eta Argia astekariari isuna kendu izanari buruzko "gogoeta" egin duten galdetu zion "elkartasuna adierazi ez zioten" taldeei.

Udaleko webgune berrituaren egoeraren inguruko informazioa eskatu zuen Ahal Duguk.

EAJ-k, bere aldetik, azken astetako lapurrete buruzko kezka agertu zuen, eta Udal Gobernuari galdetu zioten ea Ertzaintzarekin segurtasun neurriak koordinatu dituzten. Udalbatzarrak streaming bidez emateko prozesua nola dagoen ere jakin nahi izan zuten.

Herritar batek, halaber, Udaltzain kaporalari "ezarritako hizkuntza eskakizunarekin" desadostasuna agertu zuen, eta alde agertutako taldeei galdera bana luzatu zion.

Kontenedore organikoaren egoerari eta markesina ezari buruzko galderak ere egin zituzten bertaratutako herritar batzuek.

IRADOKIZUNAK EGITEKO APP BAT ETA BARATZE EKOLOGIKOAK SUSTATUKO DITUZTE

Guztion Lasarte-Oria lehiaketaren hirugarren edizioa

Hiru ekintza-eremu izango ditu: Berdintasun Planean identifikatutako 'puntu beltzak', lokalak eta mural handiak

Iñigo Gonzalez

Arranbide kalean aurkeztu zuten Guztion Lasarte-Oria lehiaketa. Alkateak aurreratu zuenez, horma hori izango da eraberrituetakoa bat: tranbiaren irudiekin izango da apaindua.

Erdigunetik pixkat aldentuta dauden auzoetako hormei beste itxura bat ematea, izango da berrikuntzetako bat. Arranbide kalekoaz gain, Oriako pilotaleku atzealdeko horman garai bateko zirkuitu automobilistikoan

ibiltzen ziren autoak margotuko dira. Eta, pilotalekutik Karmengo Amaren kapera arteko tartean, berriz, Sorgin Dantza edota Brunet fabrikako irudiak.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, herriko mural batzuk aukeratuko dira, itxuraberritzeko. Gaia berdintasuna izango da. Udalak deialdi irekia egingo du interesatuta dauden artistek euren proposamenak aukera ditzaten eta margolariek aurretik jakingo dute zein gune edukiko dituzten aukeran.



Udal ordezkariak, Arranbide kaleko horma parean. TXINTXARRI

"Munduko txapelketan sei sari eskuratu ditugu"

AMAIA GONZALEZ CABALLERO DANTZARIA

Torremolinosen egiten den 'MueBT' Dantza txapelketan herritarrak sei garaikur eskuratu ditu horietatik hiru lehenengo sari, Jose Mari Orbegozo dantza bikotearekin

Maidar Azurmendi

Amaia Gonzalez Caballero dantzariak Munduko dantza txapelketan lan ona egin arren, arantzatxoa kendu nahiko luke datorren urtean eta txapelketako garaile absolutuak izan.

Zenbat denbora da parte hartzen duzuela txapelketan?

Torremolinosen egiten den honetan zehazki, 1998.urtean izan ginen lehenengo aldiz. Kategorien arazoa edota lesioak medio, joan ez garen urteak izan dira. Iaz esaterako, nahiko lesio larria izan nuen nik eta ez ginen lehiatzen joan. Ikusle bezala joan nintzen eta gezurra dirudien arren, asko ikasi nuen.

Txapelketa orain arte Europa mailakoa zen.

Bai hori da, antolakuntzan aldaketak egon ziren eta iaztik Munduko dantza txapelketa izatera pasa zen. Orain izena 'MueBT' da eta lehen Europako txapelketa zen. Honetan parte hartzeko dantzari atzerritar askok errolda estatuko hiriren batean egiten zuten, senide edota lagun baten etxean. Hau asko gertatzen zen adibidez Hego Ameriketako jendearrekin baita Errusiarrekin ere. Hau dela eta antolakuntzak, txapelketa zabaldu eta Mundu mailako dantzariak hartzea erabaki zuen.



Amaia herritarra txapelketako une batean, Vals-a dantzatzen. MUEBT

Herrialde ezberdin gehiagotik iritsi dira aurten dantzariak, hala ere, maila guztiak hartuta, 900 bikote inguruk parte hartu dugu.

Zein kategoriatan lehiatu zarete? Zein dantza estilotan?

Jose Mari eta nire artean nahikoa adin tartea dago. Hau oztopoa izan da batzuetan. Azken urteetan 30-50 urte artekoen mailan lehiatzea egokitzen zitzaigun eta aurten ere hor sartu gaituzte. Oso adin tarte zabala da eta bikote gazteagoek badute nire ustez abantaila bat.

Hala ere, aurten, bikote kopuruagatik, kategoria berria sortu dute hainbat dantzatan 40-50 urte bitartekoa. Honetan erosoago sentitu gara. Bertan lehiatu ginen Bachata, Merengue eta Salsa dantzatan eta lehenengo saria eskuratu genuen. Cha-cha-cha, berriz, hirugarren saria eskuratu dugu. Dantza konbinatua delakoan, Vals-a, Tango eta Pasodoble-a dantzatu eta puntuatzen dira, 30-50 urtekoen mailan aritu ginen. Honetan Espainiako Txapelketako bigarren saria lortu genuen eta

jarraian, Mundu mailakoan bigarren geratu ginen soilik bi punturen aldeagatik.

Pozik lortutako emaitzarekin?

Bai noski, lehenengo aldia da sei garaikur eskuratzen ditugula. 2015ean bost lortu genituen. 2016an parte hartu ez genuenez, aurten ez genekien oso ondo zer espero. Adinari dagokion kategoria zela eta, desanimatuta geunden baina azkenean oso ondo joan da.

Zergatik uste duzu lortu dituzuela sariak?

Txapelketara joaten diren bikote guztiak ondo dantzatzen dute, gainera gehienak dantzaren arloko profesionalak gara. Hala ere, egia da azken urteetan modan jarri dela akrobaziak edota mugimendu ikusgarriak egitea agertokian, eta nire ustez, horrek hainbat dantzaren esentzia galtzea eraman du. Gure estiloa oso tradizionala da. Dantza estilo bakoitzaren esentzia mantentzearen aldekoak gara eta hala jardun dugu. Momentu batzuetan bikoteek hainbeste akrobazia eginda, musika kenduta ezin zen jakin rock bat edo salsa bat dantzatzen ari ziren.

Epaileek nire ustez, estilo garbitasuna baloratu dute eta guretzat abantaila bat izan da. **Denbora luzea daramazue elkarrekin dantzatzen. Hori ere nabaritu da.** Bai urte asko dira elkarrekin eta begirada edo keinu batekin ulertzen gara. Txapelketa prestatzeko garaian, entsegu saioak egin ez arren, bakoitzak bere buruan hainbat ideia pilatzen ditu eta behin elkartuta, dena oso modu naturalean ateratzen zaigu.

Bestalde, da uka g u n konplizitatea txapelketan oso garrantzitsua da. Nahiz eta dantza prestatuta eraman, musika bertan

zuzenekoa izaten da eta inoiz ez dugu jakiten zein pieza joko duten. Gainera, pieza hasita dagoenean hasi behar zara dantzatzen beraz, bikotea ezagutzea oinarrizkoa da egoerak irakurtzen jakiteko; noiz hasi biak batera etab. Berdina gertatzen da amaierarekin. Zuk oso amaiera polita prestatuta izan dezakezu baina hau ere noiz iritsiko den ez dakizunez, inprobisatzeko gaitasuna eduki behar duzu.

Mota honetako txapelketetan parte hartzea garrantzitsua da?

Bai, oso. Esan bezala, iaz ikustera joan nintzen soilik eta asko ikasi nuen. Lehiakide bezala ikusi nituen nahi gabe egiten diren akats pila eta aurten horiek ez egiteko lana egin dugu. Bestetik, dantza irakasleak izanda, halakoetan modan edota tendentzia izango diren dantza estiloak ikusteko balio du. Adibidez orain 'bachata sensual' delakoa dago modan eta hau iazko txapelketan nagusi izan zen zalantzarik gabe.

Sari asko dira dagoeneko eskuratutakoak. Zerbait falta al zaizue irabazteko?

Gure arantzatxoa da dantza konbinatuko lehenengo saria lortzea. Hau da txapelketako sari nagusia eta aurten oso gertu geratu gara... Datorren urtera begira hori izango da gure helburua.

Sariak azkenean urtetako lan gogorraren aitortza dira eta harrotasunik gabe, oso gustura hartzen dira. Jose Mari nire dantza bikotea Azpeitiko da eta bertan aitortza ekitalditxo bat prestatu digute. Politia da halakoak jasotzea baina niretzako nire ikasleen errespetua eta nire lorpenekin euren poztasuna ikustea izugarria da.

Festetarako diru laguntzak

Apirilaren 28ra arte izango da San Pedro jaietarako diru laguntzak eskatzeko epea eta Udalak jakitera eman duenez, 9.190 euro zuzenduko ditu horretarako.

Egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisiko eta juridiko, publiko zein pribatuek eskatu ahal izango dituzte laguntza horiek, eta norgehiagoka-erregimenean irekitako deialdiaren bitartez tramitatuko dira.



TXINTXARRI

Animalia abandonatuak jasotzeko zerbitzua

Udalak Gipuzkoako Abere eta Landare Babeslea elkarteari esleitu dio gurean animalia abandonatuak jasotzeko zerbitzua 2017. urte honetan. Kontratuaren totala 7.000 eurokoa dela jakitera eman du udalak eta honen baitan besteak beste, katu eta txakurrak jaso eta hauen mantenua dago 30 egunez.

Barrikotea Buruntz Azpi elkartean martxoaren 25ean

Buruntz Azpi elkarteak kideek barrikotea antolatu dute datorren larunbaterako. Jakitera eman dutenez, azken eguna honetan izena emateko osteguna 23 izango da eta elkartean bertan egin beharko da. Sagardotegiko ohiko menua dastatuko dute eta honen prezioa 25 eurokoa da. Elkartetik ahalik eta lasterren izena ematea gomendatzen dute.

“Oso gogorra da jateko egunero jendea ilara egiten ikustea”

NEREA ARTEAGA ZAPOREAK PROIEKTUKO BOLUNTARIOA

Iragan astean itzuli zen Nerea Arteaga Greziatik, Lasarte-Oriara. Hilabetez egon da Zaporeak proiektuarekin Greziako Chios uhartean, bertan diren errefuxiatuei laguntzen

Maddi Noriega

Esperientzia gordina bezain aberasgarria bizita itzuli berri da Nerea Arteaga (Lasarte-Oria, 1989) herritarra Greziatik. Hilabete igaro du Chios irlako errefuxiatuen kanpamentuan. Zaporeak Proiektuarekin boluntario gisa joan zen bertara eta beste zenbait zereginetan aritzeaz gain, sukaldako lanetan aritu da bere eguneroko

jardunean; eguneroko bazkaria prestatzen zuten.

Goizean goiz jaiki eta gosaria amaitzearekin batera, eguneko otordua prestatzen aritu dira Chiosera joandako boluntarioak. Prestatu beharreko barazkiak zuritu, janariak prestatu eta eguerdiko, Soudako kanpamendura joaten ziren janaria bertako errefuxiatuei banatzera.

Gogorra izan da lasarte-oriatarrentzat egunero bertako errefuxiatuak ilaran janariaren zain ikustea, itsaso bazterrean gerturatu eta bertan, hortzimugara begira errefuxiatuak etorkizunaz ametsetan behin eta berriro ikustea, baina aldi berean, gozotik ere faltarik ez dute izan une gogor horiek guztiek. Prestatutako otorduen trukean

irribarreak eta eskertzak besterik jasotzen ez zituzten une horiek lausotzen zuten egunerokoaren egoera latza.

Lasarte-Oriara buelta egin eta Txintxarrarekin izan da bertan bizitakoaren berri eman asmoz. **Zerk bultzatuta joan zinen Chioseko errefuxiatuen kanpamentura?**

Errefuxiatuen mugimenduaren berri azken bi urteetan dezente entzun dugu eta orain dela ia urtebete, lagun batek esan zidan Chioseko greziar uhartean egon zela Zaporeak proiektuarekin. Bere esperientziaren berri eman zidan eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, baina momentu hartan lanean nengoen eta ezin nuen joan, nahiz eta aurrerago joateko aukera ez nuen baztertzeko. Utzi eta utzi, eta ez nuen bertara joateko aukera zehatzik ikusten. Baina bat-batean, Gabonen ostean, beste lagun batek esan zidan bera ere bertan izan zela eta esperientzia horren berri izan nuen berriz ere. Gerora, langabezian geratu nintzen, orduantxe aukera zela pentsatu nuen. Horrela, hitzaldi bat egon zen Anoeta herrian eta bertara joan nintzen entzutera. Oso interesgarria iruditu zitzaidan eta Zaporeakekin kontaktuan jarri nintzen. Beraien egoitzara joan eta funtzionamenduz hitz egin zidaten.

Zertan oinarritzen da Zaporeak proiektua?

Zaporeak proiektua sukaldetan dago oinarritua, hau da janaria prestatu eta errefuxiatuei janari hori ematea da Zaporeak Proiektuaren lana. Beraz sukaldetan ordu asko pasa ditugu, lan asko egon da sukaldetan eta lan mota ezberdinak. Orduan sukaldako lan horietan kokatze prozesu horretan ibili naiz.

Honekin batera, kontuan izan behar da talde bat dela, jende

asko zegoen Zaporeak Proiektuaren barruan (sukalde arduraduna, sukalde laguntzaile edo beste arduradun bat, koordinatzailea eta hortaz gain, beste hamabost bat boluntario).

Zenbat denbora igaro duzu Chioseko errefuxiatuen kanpamentuan?

Hilabete egon naiz bertan. Berez, Zaporearen proiektuan boluntarioek hiru aste igaro ditzakete gehienez, baina azkeneko astean oso jende gutxi geratzen zenez, bertan gelditu nintzen.

Nolako egoerarekin egin zenuen topo bertara iristean?

Iritsi eta lehenengo irudia ez zitzaidan uste nuen bezain bortitza egin. Telebistan katastrofearen berri ematen dute uneoro; kanpin denak elurrez beteta, etab. Orduan irudi horiekin hara joan eta lehenengo sentsazioa ez zen hain bortitza izan. Baina gero, bertako errefuxiatuekin bizitzeko jarri nintzen, egunerokotasuneko gauzak elkarbanatzerako orduan ikusi nuen ez zegoela bertan batere egoera xamurra. Jabetu nintzen igaro dutenaz, pasatzen ari direnaz eta beraien etorkizunaz ezer ez dakitela; beraien bizitzaz zer izango ote den ere ez dakite.

Lehen irudia ez zen hain gordina, baina gero zenbat eta gehiago ezagutzen joan eta geroz eta harreman gehiago egin beraiekin, gordintasun hori gehiago islatzen da. Lehenengo egunetan ez agian, baina gerora bai konturatu nintzen errefuxiatuen kanpamenduko egoera zailaz.

Nolakoak izan ziren Soudako kanpamentuan igarotako lehen egunak?

Hasierako egun horietan lanaren funtzionamendua eta taldea ezagutu eta ardurak ikasten aritu nintzen.

Sukaldea herritik aparte dago, lokal bat da eta ez dago erdigunean. Janaria Soudako kanpamentuan banatzen genuen, eta lehenengo egunean, iristen zen boluntario berria banaketara jaisten zen. Janaria banatzearen truke irribarreak besterik ez ziren ikusten. Hau oso polita izaten zen, jendea oso eskertua izan da gurekin. Bertako jendea gerturatzen zen nongoak ginen jakin minez. Goizeko 07:30ean hasi eta arratsaldeko 16:30ak arte egoten ginen lanean, gutxi gora behera. Batzuetan taldean



Sukaldako lanetan aritzeaz gain, kanpamentuko jendearekin beste hainbat gauzetan aritu zen lasarte-oriatarra. NEREA ARTEAGA

“CHIOSERA IRITSI ETA LEHENENGO IRUDIA EZ ZITZAIKAN USTE BEZAIN BORTITZA EGIN HASIERAN”

“EGUNEROKOTASUNA ELKARBANATZERAKO UNEAN IKUSTEN DA EGOERA EZ DELA BATERE XAMURRA”



Zaporeak proiektuko boluntarioek Soudako kanpamentuko errefuxiatuentzat eguerdiko janaria prestatzen zuten, egunero-egunero. NEREA ARTEAGA

aritzen ginen lanean, bestetan ardura zehatz bat tokatzen zen eta beraz, hasierako egunetan horiek ikasten aritu nintzen. **Zehazki zein izan da zure lan Chiosen?**

Janaria prestatzea eta Soudako kanpamentuan prestatutako janari hori banatzea zen gure lana; goizeko 07:30etatik 16:30tara. Eguerdiko 13:30ean banatzen genien bazkaria. Gosaria eta afaria katerin batek prestatzen zuen. Eta orain bazkaria ere beraien esku geratu da. Errefuxiatuak bi kanpamentuan egoteaz gain, etxeetan ere badaude. Horrela, ostiraletan janari kutxa batzuk prestatzen genituen eta etxeetan zeuden errefuxiatuengana joaten ginen janari kutxa horiek banatzera. Hauek, etxeetan bizi direnez badute sukaldatzeko diru kopuru bat, beraz guk ematen genien janaria gehigarri bat zen. Ostiraletan beraz, eguneko lana bukatu eta etxez-etxe joaten ginen janaria banatzera. Bi ruta egiten ziren; lehena Chios hiri barruan eta bestea, berriz, inguruko herrietan.

Hau adibidez oso polita izaten zen niretzako. Etxez etxe joaten ginen, barrura sartzer

gonbidatzen gintuzten, te bat ateratzen ziguten... Beraiekin elkarbanatzeko momentu politikak izaten ziren. Azken finean, egunerokotasunean, janari banaketan lau hitz egiteko aukera izaten genuen, baina etxeetara joaten ginenean, bertako jendea gehiago ezagutzeko, beraien eta gure istorioak elkarbanatzen genituen, elkar ezagutzeko aukera polita izaten zen.

Nola egiten zenuten eguneroko janari banaketa?

Mahai luze bat zegoen banaketa eremuan. Mahai horretan, bi txiringito jartzen dira. Ertz batean, ogia eta mahai-tresnak, erdian janaria eta beste ertzean, berriz, postrea. Parean Norbegiako NRCko langileak genituen. Hauek errefuxiatuen kartillak begiratzen zituzten, banan-bana eta kartilla horien arabera zenbat otordu zegozkien esaten ziguten. Janaria jasotzeko beraz, errefuxiatuak ilaratan jartzen ziren. Hiru ilara osatzen ziren; batean emakumeak biltzen ziren, beste ilara batean gizonezkoak, eta hirugarren ilara batean, errepikatu nahi zuten gizonezkoak edo kartillarik ez zuten errefuxiatuak. Ilaretatik, lehenengo NRCko pertsonengana

iritsi eta kartillak erakusten zituzten eta kartilla hori analizatuta guri esaten ziguten zenbat otordu zegozkion pertsonari eta izkinetatik joan egiten ziren. Segurtasunagatik egiten zen horrela. Gure postutik ikusita, niretzako egoera oso bortitza zen. Oso gogorra da egunero-egunero jateko jendea ilara bat egiten ikustea, eta honekin batera, hainbat puntu pasa behar izatea otorduak lortzeko.

Chiosen aurkitzen diren errefuxiatuak kanpamentu berean bizi dira?

Ez, errefuxiatuen bi kanpamentu daude Chios irlan; Vial eta Souda. Azken hau herrian bertan dago, itsasoaren ondoan eta garai bateko gaztelu baten harresiaren atzean. Bertan kanpin dendak, plastikozko etxetxo batzuen antzerako etxeak, eta horiekin batera, festetako karpa handien itxurako estalkiak daude. Azken hauek 20 bat logelatan banatuak. Vialeko kanpamentua, berriz, militarra da. Herritik urruti eta erabat hesituta dago, eta barrakoiak daude bertan. Oso mugatua, ia debekatuta, dago bertarako sarrera. Kanpo militar bat da eta kanpoko jendeak ez du bertakoekin elkar eragiten.

Soudako kanpamentuko errefuxiatu guztiek berez kartilla dutela suposatzen zen.

Bertan igarotako hilabeteen zenbat otordu prestatzen zenituzten?

736 otordu prestatzen genituen azken bi asteetan. Aurretik gehiago prestatzen ziren, baina azken hilabeteen jaisten joan da kopuru hori. Eguerdiko 13:30etatik 14:45tara izaten zen banaketa ordua, eta tarte horretan banatu gabe geratutako otorduak errepikatu nahi zuten edo kartillarik ez zuten pertsonak osatutako ilaran banatzen genituen. Sukaldatutako janari guztia banatzen genuen.

“EUROPARANTZ JOATEKO AUKERA HORI NOIZ IRITSIKO ZAIN BIZI DIRA EGUNEROKOTASUNEAN. DESESPERATUTA, NEKATUTA DAUDE ETA EZ DAKITE ETORKIZUNEAN ERE ZEIN AUKERA IZANGO DITUZTEN ”

Nola moldatu zarete hizkuntzarekin? Askotan esan izaten da hizkuntza muga bat dela, baina funtsean, konturatzen gara hainbatetan hizkuntzaren beharrik ez dagoela komunikatu ahal izateko.

Errefuxiatuekin ingelesez komunikatu gara gehienbat. Gaztetxo batzuek, ingeles maila oso altua dute, baina gehienek, bertan urtebete igaro eta gero ingelesez hitz egiten ikasi dute edota bazeuden euren herrialdean ingelesa ikasia zuten, baita kale txikiko ingelesarekin nolabait komunikatzen ziren gutxi batzuek ere.

Eskolarik ba al da kanpamentuan?

Bai, eskolak sortu dira eta ingelesa, grekoa eta arabiera ikasteko aukera zegoen bertan. Gu arabiera zertxobait ikasten ere aritu ginen. Irakaslea errefuxiatu bat zen eta dohainik ematen zizkigun hizkuntza klase haiek. Berak ez zuen dirurik jasotzen klase horiek ematearen trukean, baina nire ustez, arabieraren irakaskuntzan aritzeak bizia eman dio errefuxiatuari, kanpamentuan.

Nolakoa da Chiosko errefuxiatuen eguneroko bizitza bertan?

Nazkatuta, desesperatuta daude hainbeste denbora kanpamentuan zain egoteaz. Orokorrean, jan, egon, lo egin eta itxaron egiten dute; Europarantz joateko aukera noiz helduko zain. Kanpamentuan bizi diren errefuxiatuek ez daukate autonomiarik eta otorduak noiz emango zaien menpe daude. Honetaz gain, eskolara joaten direnak ere badaude, eta hainbat errefuxiatu beste talde bateko sukaldean aritzen dira boluntario gisa eta bertan, sukaldaritza klaseak ematen hasi dira. Orduan, nolabait esateko, zeregin bat dute, ilusio bat dute, ez dira dendan jaiki eta dendan bertan egoten egun osoa. Dantzarako tarterik ere izaten genuen; gure lan orduak bukatu eta Soudako kanpamentura jaitsi aurretik, azken astean, dantza sirio eta kurduak erakusten zizkiguten. **Nola iristen dira errefuxiatuak Greziako Chios uhartera?**

Irlara iristeko bidea Turkiatik egiten dute. Turkiako Izmir hirira autobusean iristen dira. Hortik Chios irlara zazpi kilometro daude, itsasoz eta gutxi gora behera, 1000 euro inguru ordaintzen dizkiete mafiari bide hori egitearen truke. Barkua gidatzen duenak ez du

ordaintzen, baina normalean ez dute gidatzen jakiten. Horrek arrisku bat du; bidea zuzen harrapatzen badute, ordu erdi batean Chiosen egon daitezke, baina zuzen harrapatzen ez badute ordu asko pasatzen dituzte itsasoan bueltaka. Honekin batera, uretara atera eta Turkiako uretan poliziak harrapatzen baditu, berriz ere Turkiara bueltatzen dituzte, aldiz Greziako uretara iristen baldin badira, Greziako poliziak portura iristen laguntzen die.

Itsasoaren arabera Chiosera iristen diren txalupa kopurua aldatu egiten da. Normalean, itsasoa lasai baldin badago txalupa gehiago iristeko aukera gehiago daude. Ni egon nintzen hilabetean, hiru txalupa iritsi ziren egun batean, beste egun batean txalupa bat eta astelehen honetan, berriz, beste hiru txalupa iritsi ziren. Honen aurrean, bai Turkian eta baita Grezian ere boluntarioak harremanetan daude. Turkiako txalupak atera direla abisatzen diete Greziako boluntarioei; jakitun daude. Behin portura iritsitakoan, errefuxiatuak hoztuta, bustita iristen dira eta boluntarioak beraien zain egoten dira arropa eta zapata lehorrekin, laguntza emateko prest. Portuan, poliziaren lan orduak baldin badira, Vial kanpamendu militarera doazen errefuxiatuak autobusean sartu eta hiru euro ordainarazita kanpamendu militarera eramaten dituzte. Bertan, oinatza hartu eta irlara iritsi direla ziurtatzen duen fitxa bat betetzen diete. Baina poliziaren lan orduetatik kanpo heldu bada txalupa, edo Vial itxita baldin badago, lan ordua iritsi bitartean zain egon behar dute portuan. Behin prozesu hau pasata, Vial kanpamentuan geratu behar duten edo Soudara joango diren esaten diete.

Zer diote bertako errefuxiatuek? Desesperatuta daudela adierazten dute gehien. Nekatuta daude. Askotan pentsatzen dute guzti honetan zailena itsasoa zeharkatzea dela. Bertan nengoela, Argeliar batek esaten zidan bera etxetik atera eta Greziara iristeko hiru egun behar izan zituela, oso ondo joan zela bidaia, baina behin Chiosera iritsita, berak ez zuela bertan hainbeste denbora zain egon behar izatea espero; ez aurrera



Martxoaren bostean azken bazkaria eman zuten Zaporeak proiektuak Chiosen eta boluntarioek eskerrak emateko pankarta bat egin zuten. NEREA ARTEAGA

ez atzera. Jendea bertan usteltzen ari da. Chiosen, itsas-ertzean eserita zegoen gizon batek ere hala zioen; nahiago zuela tiro edo kolpe baten ondorioz hil irlan gutxika hiltzen egotea baino.

Horrenbeste denbora zain egonda egoera gero eta gehiago zailtzen ariko da, noski...

Bai. Itsas salbamenduan badago medikua den emakume bat eta berak kontatutakoaren arabera, prostituzio dezente dago kanpamenduan (batzuk nahi dutelako eta beste batzuk, berriz, egoerak behartuta). Emakume eta hurrekiko erasoak ere gertatzen ari dira, familia liskarrak, alkohol eta droga kontsumo handia... Beraien artean ere geroz eta liskar gehiago sortzen ari dira, nekatuta daude eta desesperazio horren ondorio dira hauek guztiak. Gu bertan geundela kanpin denda bat guztiz erre zuten eta beste bi ere erasotak izan ziren. Nahita egindako eraso bat izan zen eta bertan bizi ziren sei mutilek gainean zeramatzen

guztia galdu zuten; dirua, erropak...

Irtenebiderik ikusten al dute?

Martxoaren 20an beteko da urtebete mugak itxi zirela eta esaten denez, deportazioak hastera doaz orain. Egia da errefuxiatuak irlatik ateratzen ari direla. Batzuk legalki, baimenak lortzen dituzte eta Atenasera joaten dira, baina beste batzuk, berriz, ilegalki baina jendea irlatik ateratzen ari da. Horrek ordea ez du esan nahi Chiosen baino hobeto daudenik. Atenasera edo leku berri batera joateak ez du esan nahi zerbait hobea izango denik; batzuetan benetan hobea izaten da eta hori poztekoa da, baina beste batzuetan ez. Nik kanpamendutik alde egin nuen egun berdinean, gurekin sukaldian aritzen zen gazte bat Tesalonikara joan zen bere familiarekin. Lehenago, Greziako Estatuko kanpamentu batetara joateko aukera eskaini zioten familiari, baina Chiosen geratzea erabaki zuten, bertan ez baitzeuden horren gaizki. Eskola

zeukaten, sukaldian ere integratuak zeuden, familiarentzako denda bat zuten eta bertan geratzea erabaki zuten. Baina nik kanpamentua utzi nuen egun berdinean, Tesalonikara joateko aukera eman zioten familia horri. Bertan etxe batean bizitzeko aukera izango zutela eta, onartu eta bertara iritsi zirenean, Tesalonikatik ordu eta erdira dagoen desertu moduko leku

“MARTXOAREN 20AN URTEBETE BETEKO DA MUGAK ITXI ZIRENETIK. PIXKANAKA CHIOSETIK ATERATZEN ARI DIRA ERREFUXIATUAK, BAINA HORREK EZ DU ESAN NAHI IRLAN BAINO HOBETO DAUDENIK”

batekin egin zuten topo; ez daukate ezer inguruan.

Estatura leku aldatzea beraz ez da aurrerapausorik.

Nola borobilduko zenuke Greziara egindako bidaia? Zein da bertan bititakoaz gorderik duzun oroitzenekin politena eta zerk larritu zintuen gehien?

Momentu ezberdinak ditut gogoan, baina jendearen esku zabaltasuna izugarria zen. Zeukaten gutxia bertan geundenokin elkarbanatzeko prest zeuden; guk banatutako janaria gurekin partekatu nahi izaten zuten, adibidez. Baina niri benetan estutu ninduen unea, etxera bueltu nintzenekoa izan zen; etxera bueltatzen nintzen ni eta beraiek bertan gelditzen ziren. Ni nahi nuelako, aukera nuelako bueltatzen nintzen etxera eta beraiek berriz, ez aurrera ez atzera egiteko aukerarik gabe gelditzen ziren Soudako errefuxiatuen kanpamenduan. Bizitza hobe baten bila ihes egin dute etxetik eta hala ere, beti, gordinkeria hortan bizi behar izatea latza da oso.



Beraien herrialdeetik ihes egitera behartuta

Asteazkenean 6 urte bete ziren Sirian gerra lehertu zenetik, eta orduaz geroztik, 321.000 pertsona hil eta 12 milioik ihes egin behar izan dute herrialdeetik bizitza berri bat hasi gogoz. Baina irtenbideak ez dira espero bezain azkar iristen. Martxoaren 20an urtebete beteko da mugak itxi zirenetik, eta errefuxiatuek ez aurrera ez atzera egin ezinik jarraitzen dute oraindik ere. Egoera gordina bizi dute oso, eta hori ahalik eta arinen egin eta ahal beste laguntza eman asmoz, boluntario taldeak Greziako uhartean izan dira; Zaporeak proiektuko boluntarioak, besteak beste. Proiektuak urtebete pasa du irlako errefuxiatuen kanpamentuan. Guztira 300 boluntario aritu dira lanean, eta 500.000 otordu prestatu dituzte. Bide horrek ordea, hasiera izan zuen moduan amaiera ere izan du eta martxoaren 5ean eman zuten azken otordua. Garbi azaldu dute baina, bide hau ez dela betiko hemen amaitu eta hemendik aurrera ere errefuxiatuei laguntza ematen jarraituko dutela.

Apirilaren 2an jokatu da herriko 7. BTT proba

Hilabete baino gutxiago falta da Lasarte-Oriako BTT lasterketaren 7.ediziorako. Prestaketa lanetan ari dira antolatzaileak, eta izen-emate epea ere zabaldu dute: apirilaren 1a, larunbata izango da lasterketan apuntatzeko azken eguna.

Txintxarri

Trabesia zaleek dagoeneko edukiko dute apirilaren 2a gorriz azpimarratuta euren egutegietan. Egun horretan jokatu da Lasarte-Oriako BTT probaren 7. edizioa. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, dagoeneko eman daiteke izena lasterketa horretan, btllasarteoria.com webgunean. Martxoaren 30era arte izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte; martxoaren 31tik apirilaren 1era bitartean, berriz, 18. Eta, txirrindularitza lizentzia federatiboa indarrean ez dutenek, hiru euro gehiago ordaindu beharko dituzte aseguruia edukitzeko.

Internet bidez apuntatzeko epea lasterketa bezperan itxiko da; hau da, apirilaren 1ean, larunbatarekin, 16:00etan. Egun horretako arratsaldean bertan, 17:00etatik hasita eta 20:00etara, Urbil merkatal zentroan ere egongo da aukera lasterketan izena emateko, arestian esan bezala, 18 euroren truke.



luzko edizioko irudi bat. TXINTXARRI

Bi ibilbide Andatzen zehar

BTT proban parte hartu nahi dutenek bi ibilbide edukiko dituzte aukeran; Andatza mendian barrena egingo dira biak. 28 kilometro luze izango ditu motzak, 620 metroko desnibel positibo metatuarekin, eta 38

luzeak (1.100 metroko desnibela). Antolatzaileek espero dute 500 parte-hartzaile baino gehiago biltzea apirilako lehen igandean.

Lasterketan izena ematen duten guztiek oparia jasoko dute: probaren babesle den BMW Lurautok botilatxo bat eta oinetakoak garraiatzeko poltsa bana emango die guztiei.

Bestalde, BTTa jokatu dutenek anoa ugari edukiko dituzte bi ibilbideetan zehar, elikagai solido zein edarien bitartez indarrak berritzeko. Eta, proba bukatu eta gero, hamaiketako goxo bat ere edukiko dute denek zain Okendo plazan.

Bizikletak plazan bertan garbitu ahalko dituzte baita ere, mangera bat baino gehiago jarriko dituztelako antolatzaileek helmuga-lerrotik gertu. Eta, azkenik, hala nahi dutenek, Maialen Chourraut Udal Kiroldegian dutxatu eta aldatu ahalko dira arropaz lasterketan amaitu ostean.



Junior mailako taldeek euren artean jokatu zuten. TXEMA VALLES

Jardunaldi borobila Ostadar SKTko saskibaloitaldeentzat

Garaipen baliotsuak lortu zituzten talde gehienek, fase erregularrak amaitzear direlarik

Martin Vicioso

Emaitza onak eskuratu zituzten Ostadar SKTko saskibaloitariek pasa den asteburuan. Sei taldetatik bostek lortu zuten garaipena.

Errendimenduko juniorren arteko derbia jokatu zen larunbat arratsaldean, eta lehenengo taldeak poltsikoratu zuen norgehiagoka, 58-35. Gauzak horrela, bigarren da Ander Otaegik zuzendutako taldea, liderraren puntu bereberekin.

Gizonezko seniorrak liga erregularra amaitzeko jardunaldi baten faltan dira, eta igoera fasea jokatzeko txartela jadanik eskura

dute. Larunbatean Mutriku 58-51 menpean hartu zuten eta lehen posturako lehian daude.

Parekotasun handia dago emakumezkoen senior kategorian. Laugarren postuan da Ostadar SKT, baina hirugarren eta zazpigarren kosken artean bi punturen aldea dago soilik. Beraz, datorren astean partidu garrantzitsua jokatu dute lasarteoriatarrek.

Kadeteek, bere aldetik, bere norgehiagokak irabazi zituzten ZAST Zarautzen eta Ordizia 2001en aurka, aurreko astean hasitako bolada onari jarraipena emanaz.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
KADETEEN OHOREZKO MAILA,
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 12:45. Michelin.
INFANTILEN OHOREZKO KOPA
Ostadar SKT - Martutene KE Larunbata. 09:45. Michelin.
JUBENILEN 1GO MAILA, IGOERA FASEA
Martutene KE- Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Martutene, Donostia.
EMAKUMEEN IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Touring KE Larunbata. 17:30. Michelin.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Larunbata. 17:00. Mastegi, Lesaka.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Oiartzun KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Karla Lekuona, Oiartzun.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Urdaneta H.K. - Indaux Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
Ilargi - Viña del Mar Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
Trumoi - Kebab Taberna Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
Izkiña - Also Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Kattagorri insausti - Aita Amari Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
Reformas Lagunak - Txoko Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA
Cecilia Ostadar - Lauburu Aldaz Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.
The Nest Hirukide - ISU Lehiok Igandea. 11:00. Eskolapioak, Tolosa.
3. NAZIONAL MAILA
Ostadar Antonio - Laskorain KE Larunbata. 20:00. M.Chourraut kiroldegia.

GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Arantzazuko Ama - Kafe Buenetxea Larunbata. 11:45. Arantzazuko Ama ikastola, Donostia.
SASKIBALOA
PARTIZIPAZIOKO KADETEAK
Urbycolan Hondarribia - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Hondartza kiroldegia, Hondarribia.
SENIOR EMAKUMEZKOAK, 1GO PROBINTZIALA
Arri BKL - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Antzizar kiroldegia, Beasain.
GIZONEZKO SENIORRAK, 3. PROBINTZIALA
Cafes Aitona Askatuak - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Paco Yoldi kiroldegia, Donostia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Bera Bera - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Benta Berri Kiroldegia, Donostia.

ERRENDIMENDUKO JUBENILAK
Ostadar SKT 'B' - Goierrri Kirol Aukera Igandea. 11:00. M.Chourraut kiroldegia.
Cafes Aitona - Ostadar SKT 'A' Igandea. 12:00. Bidebieta kiroldegia, Donostia.
IGERIKETA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTko Leire eta Ainhoa Martin infantil mailako neguko Espainiako Txapelketan hartuko dute parte Larunbatetik asteartera. Santa Olaya igerilekua, Gijon.
LASTERKETAK
AFIZIONATUAK
Herriko korrikalari ugari Donostiako XV. Udaberri Lasterketaren 10 kilometroak korrituko dituzte Igandea. Donostia.

PILOTA
BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA, FINALERDIAK
Arteaga II/Erasun - Laso/Iturriaga Ostirala. 22:00. Ordiziako pilotalekua.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
Eibar RT - Babyauto Zarautz Ostirala. 19:30. Unbe rugby zelaia, Eibar..
16 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - La Rioja Larunbata. 14:30. Michelin.
14 URTE AZPIKOA
Gure Etxea Beltzak - Ordizia RT Larunbata. 15:00. Zubipe, Hernani.
18 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - La Rioja Larunbata. 15:45. Michelin.



Urtero, Gipuzkoako Eskola Kiroleko tenis txapelketa antolatzen du LOKEK. TXINTXARRI

Urtetik urtera, garatzeko erronkari eutsiz

Maila federatuetan astero lehiatzen duten tenislari askorik ez badago ere, gaztetxo ugari aritzen da Michelingo pistetan entrenatzen. Urtetik urtera, Lasarte-Orian zaletasuna sustatzeko helburua dute klubek

Martin Vicioso

LOKE eta Ostadar SKT dira Lasarte-Orian tenisa jorratzen duten klubak. Baliteke herriko gaztetxoengan beste kirol batzuek arrakasta handiagoa izatea, baina oro har, "pozik" dira duten harrerakin.

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko tenis alorreko arduradun Xabier Gonzalezek azaldu duenez, 50 tenislari inguru dituzte; 40 bat eskola kirolean eta hamar nagusi. Ostadar SKT-n berriz, 24 dira, eta aurten lehenengo aldiz nagusien taldea atera dute.

"Gure helburua aisialdiko kirol ekintza gisa tenisa sustatzea da", adierazi du Ostadar SKT-ko tenis ataleko arduradun Iñaki Altunak. "Saiatu izan gara federatu maiako lehiaketetara joaten, baina errealistak izanik, gaur egungo egoerara moldatu gara".

Ido beretik mintzatu da Xabier Gonzalez. "Federatu mailako lehiaketetara joatea zailagoa zaigu, baina gaztetxoekin

ekintza gehiago sustatu ditugu, eta bide horretan egin nahi dugu lan".

Eskola kiroleko txapelketa

Urteroko hitzordua bihurtu da Michelinen egiten duten Gipuzkoako Eskola Kiroleko Tenis Txapelketa.

Aurten, apirilaren 29an hasiko da banakakoa, eta hamar lasarteoriatarrek hartuko dute parte.

Taldekako fase finala, aldiz, maiatza amaieran jokatu dela jakinarazi dute. Landaberri sailkatuta dago eta, beraz, Michelingo pistetan jokatu diren partiduetan ikusi ahal izango dituzte bertaratuko diren herritarrek.

APIRILAREN 29AN HASIKO DA GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLEKO TXAPELKETA MICHELINEN

Garapena helburu

"Urtetik urtera gaztetxo gehiago" dituztela nabarmendu du Gonzalezek. Txapelketak lagundu du bere ustez. Izan ere, "lehen, maila federatutik kanpo partiduak jokatzeko aukera gutxi zegoen".

Dena den, bai Altunak baita Gonzalezek ere azpimarratu dute "garrantzitsuena kirolarekin gozatzea eta pixkanaka zaletasuna garatzea" dela.

Beste kirol batzuei "konpetentzia egitea" konplikatu dela konsziente dira. "Hasieran ume askok ematen du izena tenisean, baina etapak amaitzen joan ahala, eta kirol bakarra aukeratu behar dutenean, gutxi geratzen dira hemen", adierazi du Ostadar SKT-ko arduradunak.

Datozen urteetara begira, Lasarte-Oriako klubek erronka nagusia "tenisa landu eta jendartearen garatzea" da. Beti ere, "errealistak izanik eta herriko kirolak bizi duen egoera ezagutzuz".

16 urte azpikoen ZRT Gure Etxea Beltzak, Euskal Liga irabaztear

La Rioja taldearen aurkako partidua irabaziz gero, sailkapeneko lehenengo postua eskuratuko lukete

Martin Vicioso

Denboraldia borobiltzeko azken urratsa ematear dira ZRT Gure Etxea Beltzak taldeko 16 urte azpikoen taldekideak. La Riojaren aurka atzeratutako norgehiagoka baten faltan, hirugarren dira; baina hura irabaziz gero, Euskal Ligako txapeldun bihurtuko liriteke. Biharko 14:30ean jokatu da partidu erabakigarria Michelinen.

Gasteizko Escor Gaztedi RT, orain arte galdu gabe zegoen liderra, menperatu dute aste honetan 29-17.

18 urte azpikoen nagusitasunez irabazi zuten talde beraren aurka. 92-0eko markagailua finkatu zuten gipuzkoarrek Zarauzko Asti zelaian.

Alex Sageta, Espainiak deitua

16 urte azpiko Espainiako selekzioak ZRT Beltzak taldeko



Gaztedi izan dute aurkari BELTZAK RT

Alex Sageta deitu du, etorkizunera begirako jardunaldi batzuetan parte hartzera. Astelehenean Federazioko ordezkari batekin aritu zen lanean, Joan Sorreluz taldekide zarauztarrarekin batera. Beltzak taldeko kideek adierazi dute errugbi eskolarentzat "urrats garrantzitsua" dela.

Absolutu mailako Espainiakoan ongi aritu da Nahia Zudaire

Alebina izan arren, lan txukuna egin du Zudaire igeriketa egokituko Espainiako Txapelketan. Oviedon jokatu zen lehiaketa eta lau frogetan hartu zuen parte. Lehenengo hamarretan sailkatzea lortu zuen 50 metro tximeletan, 400 estiloetan eta 200 estiloetan. Asteburu honetan, berriz, Leire eta Ainhoa Martinek Espainiako Neguko Txapelketan hartuko dute parte Gijonen.

Lidertzan sendotu dira Ostadar SKTren Ohorezko jubenilak

Hernaniren aurkako partidu borrokatua 2-1 irabazi ondoren, lidertzan jarraitzen dute Javi Solchagaren eta Ibai Etxaideren mutilek. Bigarren postuan den Dunboa Eguzkik, berriz, Oiartzunen kontra galdu zuen etxean eta, beraz, bost puntura dira lasarteoriatarrengandik. Oiartzun aldera bidaiatuko dute Ostadar SKTko jubenilek asteburuan.

Martxoaren 27ra arte eman ahalko da izena Squash txapelketan

Apirilaren 3an hasiko da XXIX. Squash Txapelketa sozialean. Lasarte-Oriako Kirolen Udala Zerbitzuak antolatutako lehiaketa hau ekaina arte luzatuko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Parte hartzeko asmoa dutenek hilaren 27ra arte izango dute epea Maialen Chourraut kiroldegiko kafetetegian izena emateko. Bazkideentzat 10 euroko prezioa izango du.

Buruntzazpiko Carbayeda bigarren San Jose sarian

Errepideko denboraldia hasi berri da, baina kategoria ezberdinetan podiumera igozteko lortu dute jadanik Buruntzazpiko txirindulariek. Luken Carbayeda juniorra bigarren izan zen Azpeitian jokatuako San Jose sarian, irabazlearengandik 3 minutu eta 20 segundura helmugaratu ondoren. Donostian lehiatuko dira bihar Buruntzazpiko juniorrak.



Arteaga II.a ederki aritu zen joan den ostiraleko neurketan, lehen atsedenaldirik aurrera batez ere. TXINTXARRI

Michelinen irabazita, finaletik are gertuago

Eskuetan oraindik ez daukate pasea, baina hatz mamiekin ari dira ukitzen Arteaga II eta Erasun. Finalerdietako ligaxkako bigarren partidua ere poltsikoratu zuten joan den ostiralean, Michelingo pilotalekuan: 22-10 irabazi zieten Peña eta Salaverriri.

Iñigo Gonzalez

Promozioko binakako txapelketako finalera sailkatzeko sei tanto gehiago besterik ez dituzte egin behar Arteagak eta Erasunek. Momentuz, finalerdietako ligaxkan bitik bi irabazi dituzte. Azkena, ostiral iluntzean, Michelingo pilotalekuan. Profesional mailan ari denetik, aurrelari lasarteoriatar gazteak etxean lortutako lehen

garaipena izan zen herenegungoa. 22-10 nagusitu ziren gorriak, Peña eta Salaverriren aurka.

Bazuten gogoa pilotazale lasarteoriatarrek herriko pilotari gazteak Michelinen garaipena eskuratzen ikusteko, eta, nola ez, ospatzeko. Profesional mailara jauzi egin zuenetik hirugarrenez aritu zen pilotaleku horretan ostiral iluntzean. Orduko

horretan, Jon Erasun zizurkildarrarekin bikote eginez, eta Peña eta Salaverri izanik aurkari. Ez zen nolana hiko neurketa izan: promozioko binakako txapelketako finalerdietako ligaxka jokatzeko ari dira bi bikote horiek, beste pare batekin batera, eta garaipen bakoitzak urrea balio du. Ostiralekoaren balioa, gainera,

bikoitza da: finalerako urrats handia egitearekin batera, hainbeste amestutako garaipena poltsikoratu zuten Arteagak. Hori ere lortu du.

Arteagak berak txokoan ederki utzitako pilota batekin egin zuten 1-0eko tantoa gorriek. Partiduan behin baino gehiagotan gertatuko zenaren augurio izan zen: zalegoa herriko pilotariak egindako tantoak ospatzen. Hori bai, tanto batzuk itxaron behar izan zituzten harmailetatik altxa eta txaloka hasteko, norgehiagokaren hasiera oso orekatua izan zelako.

Konturatzerako zazpina zihoazen. Egindako tantoak baino, halere, gehiago izan ziren gorriek zein urdinek galdutakoak. Orditik aurrera, ordea, Arteaga eta Erasun hasi ziren nagusitzen Michelingo kantxan. Bereziki azpimarratzekoa izan zen 10-7koa, neurketako inflexio-puntua seguru asko. Peña eta Salaverriren erasoan aurrean ederki defendatu ziren lasarteoriatarra eta zizurkildarra, postuak elkartrukatzera iristeraino, eta erasora pasa zirenean, Arteagak ez zuen barkatu ezker gantxo doi batekin. Zoratzen zeuden zaleak. Lehen atsedenaldira iritsi zen handik gutxira: 12-8koa markagailuan, gorrien alde.

Arteaga protagonista

Ordura arte hobeto aritu zen bikote gorria, Jon Erasun atzelaria batez ere. Sendo, eta apenas pilotarik galdu gabe. Baina atsedenaldirik bueltan aurrelariak, Arteagak hartu zuten protagonismoa, eta gaueko tanto onenak egin: ezker gantxoak, txokoan, Peña eta Salaverriren artera bidalitako pilotaren bat, eta baita sotamanoz egindako buruz gain bat ere. Bien bitartean, tantoak pilatzen

jarraitzen zuten gorriek, 18-9 jartzeraino. Bigarren atsedenaldira hartzeko ordua. Garaipena (eta finala) gero eta gertuago zituzten Arteagak eta Erasunek.

Eta horrela izan zen. Gorriek azkar itxi zuten neurketa, Peña eta Salaverriri aukerarik ez emanez. Azkenean, 22-10. Ligaxka hiru jardunaldikoa da, eta bi jokatu direnean, 44 tanto egin eta 22 jaso dituzte Arteagak eta Erasunek. Apirilaren lehen jokatu den final handira sailkatzeko, Laso eta Iturriagaren aurkako hirugarren neurketa horretan sei tanto egitearekin aski dute. Esan bezala, eskuan oraindik ez daukate pasea, baina hatz mamiekin ari dira ukitzen.

Ostiraleko jaialdia ez zen hor bukatu, ordea. Promozioko norgehiagokaren ostean beste binakako neurketa bat ikusi zuten zaleek: Victor eta Albisu Artola eta Beroizen aurka. Lehiatua izan zen partidua, eta gorriak (Victor eta Albisu) izan ziren garaile horretan ere: 22-17.

Intza KEkoen porrota

Igandean Intza KEko pilotarien txanda izan zen. Haritz Urkia eta Gaizka Iruretagoienak osatutako bikoteak Soraluez taldekoekin neurtu zituzten indarrak Michelingo pilotalekuan. 22-17 galdu zuten.

Udaberri txapelketako lehenengo faseko bost partidua jokatu ditu honezkero Intza KEK: bi irabazi eta hiru galdu ditu, 84 tanto egin eta 86 jasota.

PROFESIONALA DENETIK, LEHENENGOZ IRABAZI ZUEN ARTEAGA II.AK HERRIKO FRONTOIAN

Cecilia Keab Lasarte Ostadar, 1go mailan mantentzetik gertu

Gipuzkoako 1go mailan ari den Cecilia Keab Lasarte Ostadar taldeak urrats garrantzitsua egin zuen joan den asteburuan hurrengo urtean ere kategoria horretan lehiatzeko, Jaixki AFT arerio zuzenari 4-3 irabazita. Maialen Chourraut Kiroldegian jokatu zen norgehiagoka.

Baloi-jabetza etxeko taldearena izan zen lehenengo zatian, baina

kanpotarrak aurreratu ziren 0-1. Horrela iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarrenari ere hobeto ekin zion Ostadarrek eta bi minututan buelta eman zion emaitzari. 3-lekoa ere handik gutxira sartu zuen, baina Jaixkik atezain jokalaria atera eta neurketa berdintzea lortu zuen. Puntuak bien artean banatuko zituztela zirudienean, ordea, etxeko taldeak laugarrena sartu zuen sei segundoren faltan. Urrezko hiru puntu eskuratu zituen beraz Edu Menaren taldeak.

Raul Gomez Margallo garaile Hernaniko Sagar Lasterran

Korrikalari lasarteoriatarra izan zen joan den larunbatean Hernaniko XI. Sagar Lasterra herri lasterketako helmuga zeharkatzen lehenengoa: 29 minutu eta 55 segundoko denbora egin zuen. 22 segundora iritsi zen Ruben Aranburu eta 26ra Gaizka Sarasola. Emakume bizkorrena Maitane Guerrero izan zen, 34:54ko denborarekin.

Ostadar SKTk Euskal Herriko itzuliko porra ere egingo du aurten

Txirrindularitza itzuli handiak hurbiltzearekin batera herritar askok egiten dituzte Ostadar SKTren porrak. Aurten, apirilaren 3an hasiko den Euskal Herriko itzulirako ere prestatuko dute bat. Jakinarazi dutenez, boletoak betetzeko azken eguna apirilaren 2a izango da, igandea. Arratsaldeko seietarako jasoko dituzte txartel guztiak.


Ipar Martxan murgiltzeko azken ikastaroa bihar

Ikastaro-sorta antolatu dute Ostadar Ipar Martxak eta Ttakun KEK elkarlanean. Bihar goizean egingo dute azkena, Begoña Morianak gidatuta, 10:00etatik 12:30era. Alor teknikoa landuko dute aurrena, eta ibilbidea egin gero, Atsobakar parkean edo, eguraldi txarra eginez gero, trinketean. Prezioak: 9 euro (Ttakuneko bazkideek) edo 12.

ZORION AGURRAK



Markel
Zorionak guapeton!!!
Ondo pasa zure egunean. Maite zaitugu!!!



Leire
Zorionak Leire!! Ondo ondo pasa zure eguna! Agindua eman eta azalduko gara txin-txin egitera!!



Markel
Zorionak Markel amatxo, aitatxo eta familiaren partetik! Muxu handi bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera,
eta idatzi: izen-abizenak,
urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia abikitzeaz.

SUDOKUA

5	1			6		8	7
4	3			5			1
6			2		5		
				7	9		5
		2		4	1		3
	3		9				
9		1		2		3	
	7		1			5	8
3	5		6	7			1

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 288 888
SOS DEIAK: 112

GUTUNA

Maiatzaren 7an erabakiko dugu**BIXENTE BELTRAN**

Atsegin handiz irakurri dut Mainer Seguroiak NEURE KABUZ zutabearen idatzitako artikulua, eta jabetu naiz gero eta gehiago direla Lasarte-Orian ikusten diren maiatzak 7ko kontsulta iragartzen duten kartel xeble koloretsuak.

Batek baino gehiagok pentsatuko du, akaso, dinamika honen inguruan murgiltzen ari diren herritarrok errotuta daudela, Lasarte-Oria bezalako herri batean ez direla kontsulta hau egiteko baldintzak ematen, alegia. Egia esan, ukatzerik ez dago inguruko zenbait herrietako perfil soziopolitikoak, ez dela gurean ematen; hala ere, orain dela hiru bat urte,

zenbait herritarrek erabakitzeke eskubidearen aldeko dinamikarekin bat egitea eta honen alde lanean jartzea lehenetsi zuten.

Jatorri eta joera ideologiko ezberdineko ekimena izateko helburuarekin sorturikoa bada ere, zoritxarrez, oraindik asko dira mesfidantza erakusten dutenak, eta ariketa demokratiko hau bultzatu ordez, nahiago dute "la madre patria"-tik datozen aginduak eta ildoak jarraitu.

Pozgarria izan da Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAJ eta HB Bilduk kontsultari buruz aurkeztu eta bultzatu duten proposamena. Lehen puntuak honela dio:

"Gipuzkoako Batzar Nagusiek Euskal Herriko herritarrei etorkizunaz erabakitzeke, kontsultatuak izateko eta libre

eta demokratikoki adierazten duten borondatea errespetatua izateko dagokien eskubidea eta gaitasuna babesten dutela aldarrikatzen dute".

Beraz, guk ere lasarteoriarrok, GEDko dinamika bultzatu behar dugula deritzot nik ere, ezin baitugu ahaztu ERABAKITZEKO ESKUBIDEA printzipio demokratiko bat dela, eta, hau gauzatzea eta praktikara eramatea herritarroi dagokigun ardura.

Maiatzaren 7an erabakiko dugu.

Zubietako Yoko Garbi Elkartearen irekitzearen aldeko kontzentrazioak**YOKO GARBI ELKARTEKO KIDEAK**

Zubietako YOKO GARBI elkartearen ixteraren behartu gaituzte.

Azken 60 urte baino gehiagotan, zubietarrok izan dugun elkargunea itxiarazi digute eta honek herrian egonezin ikaragarria sortu du. Begibistan dago, kaltetuak denok garela, Yoko Garbi baita ume, gazte eta helduok bildu ahal izateko dugun lokal bakarra.

Egoera honek bazkide eta zubietar guztioi dakarzkigun eragozpen eta arazo larrien aurrean, herritar talde bat ostiralero biltzen gara Zubietako Errebote plazan arratsaldeko 8retan; alde batetik, gure egoneza adierazteko eta bestetik Yoko Garbi irekitzearen aldeko

aldarrikapena egin eta entzunarazteko.

Denon ahalegina beharrezkoa denez, anima zaitetz!

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265

102. ERRENTAN EMAN

Garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. Informazio gehiagorako. 686 674 552

2. LAN ESKAINTZAK

201. ESKAINTZAK
Emakume bat zaintzeko interno moduan lan egingo duen pertsona bilatzen ari gara. 688 645 791

202. ESKAERA


Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, orduka edo interna bezala lana

egiteko prest. 698 220 626

4. IRAKASKUNTZA

402. EMAN
Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila eta adin guztiei zuzenduta 693 601 222.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Mario Cordero Vila. Martxoaren 13an
Vera Sanchez Ruiz. Martxoaren 12an
Jare Fernandino Palomares. Martxoaren 11an
Aimar Caballero Gonzalez. Martxoaren 10ean
Iñaki Imanol Iruretagoiena Lobo. Martxoaren 10ean.
Haizea Taboada Aginagalde. Martxoaren 9an.
Eneko Taboada Aginagalde. Martxoaren 9an.

HILDAKOAK

Nieves Trenado Ballesteros. Martxoaren 16an, 87 urte.
David Alonso Aguilar. Martxoaren 9an, 79 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17	ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 18	DE MIGUEL	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 19	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 20	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 21	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 22	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 23	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Maider Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso.

Publikitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artxe,
Edu Galarri.

Informatikoa

Xabier Amadoz.

Administraria

Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Aurkezpena
Korrika Kulturalaren aurkezpena egingo da. Honetan parte hartuko dute herriko eragile ezberdinek. Korrikaren ibilbidea guretik zein izango den azalduko da besteak beste.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ANDOAIN Dantza

Aukeran dantza konpiniaren 'Maurizia' ikuskizunaz gozatu ahalko da. Euskal-dantzak sortzen duen bizi-poza, harrotasuna, indarra, pasioa eta alaitasunaren adierazagarri. Baita beldurra, amorrazioa, askatasun-nahia eta mina ere. Sarrera 12 euro.
Bastero, 21:30ean.

HERNANI Kontzertua

Zea Mays-en estudioko zortzigarren diskoa 'Harro' zuzenean entzuteko aukera. Sarrera 7 euro.
Biteri, 22:30ean.

ASTIGARRAGA Dokumentala

'Eta urte bat beranduago... WAIT JUST WAIT' Javi Julioren dokumentala ikusi ahal izango da. Urte bat betetzen da Europak mugak itxi zituenetik. Javi Julio argazkilaria Grezian grabatutako dokumental honi esker, errefuxiatu askoren egoera eta itxaropen eza erakusten du.
Kultur etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Haur Antzerkia

'Titirikontu kontari' haur antzerkia, 3 eta 7 urte artekoak zuzenduta. Sarrera 3,80 euro.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

HERNANI Jardunaldiak

'Egungo eredu irauliz, ebaluazio hezitzailea iruten' jardunaldiak antolatu ditu LAB sindikatuak. Ane Ablanado (NUP, UPPA, UEU, haurtzaroa zaintzeko haziera eredu prebentiboan aditua), Alexander Barandiaran (HUHEZI, Hazitegi ikertaldeko partaidea) eta Lore Erriondo (EHU) arituko dira



LASARTE-ORIA Bertso saioa.

Korrika Kulturalaren baitako lehenengo ekintza. Miren Artetxe, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Ane Labaka bertsotan ariko dira, gai jartzailea Amaia Agirre izango da, eta musika jarriko dute Ixak Arrutik eta Gari Otamendik.
Furia Beltza, 19:00etan

hizlari, eta bi ikastetxeren esperientzia izango da.
Orona, 10:00etatik.

ANDOAIN Kontzertua

'Paddam Musique' musika emanaldia. Estefania S. Wulf abeslariak eta Iñaki Miguel piano-jotzaileak osatutako bikoteak frantziar 'chanson' edo kantugintzaren inguruko ibilbide musikala. Sarrera 10 euro.
Bastero, 20:00etan.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Bertso Korrika

Bertsotan ariko dira Miren Artetxe, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Ane Labaka, gai jartzaile lanetan Amaia Agirre jardungo da, eta musikari Ixak Arruti eta Gari Otamendi izango dituzte lagun.
Furia Beltza, 19:00etan.

ASTELEHENA 20

USURBIL kontzertua

Organo erakustaldia egingo da. Usurbilgo organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen, Cavallé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera izango da saio honetan. Zumarte

musika eskolak antolatutako ekintza 13. Soinurbil.
Salbatore eliza, 18:00etan.

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA Irakurle Txokoa

"Barkamena, Kondena, Tortura" lanaz hitz egiteko aukera izango dute parte hartzaileek Joxe Azurmendirekin. Ohi bezala Uxue Alberdik gidatutako saioa izango da.
Ttakunenea, 18:30ean.

USURBIL Kontzertua

"Kontu kantari" jolasean ikasi, musikaz hazi" ikuskizuna. Kantuak txotxongiloekin. 13. Soinurbil egitarauaren baitakoa.
Sutegi, 18:30ean.

ASTEAZKENA 22

USURBIL Kontzertua

13. Soinurbil egitarauaren baitan organo eta txistu kontzertua.
Salbatore eliza, 19:00etan.

OSTEGUNA 23

USURBIL Kontzertua

13. Soinurbilen Beasaingo musika eskolaren emanaldia.
Sutegi, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Captain Fantastic
Ostirala: 22:00.

Ballerina
Igandea: 17:00.

Lion
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Blinky Bill el koala
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

La La land
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astlehena: 19:30, 22:00.

URNIETA

LEKAI

Angry Birds
Igandea: 16:00.

USURBIL

URBIL

El Fundador
Ostirala: 00:00.
Larunbata: 00:00.

Batman: La lego película
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.

El guardián invisible
Ostirala: 17:00, 19:40, 22:20.
Larunbata: 17:00, 19:40, 22:20.
Igandea: 17:00, 19:40, 22:20.

Es por tu bien
Ostirala: 15:45, 18:20, 20:25, 22:55.

Larunbata: 18:20, 20:25, 22:55.

Igandea: 18:20, 20:25, 22:55.

Gold
Ostirala: 00:55.
Larunbata: 00:55.

Kong: La isla calavera
Ostirala: 15:50, 18:00, 20:25, 22:25, 00:55.
Larunbata: 15:50, 18:00, 20:25, 22:25, 00:55.

Logan
Ostirala: 16:00, 18:40, 21:30, 00:20.
Larunbata: 16:00, 18:40, 21:30, 00:20.

La Bella y la bestia
Ostirala: 16:00, 21:20 (3D), 16:40, 17:20, 18:00, 18:40, 19:20, 20:00, 20:45, 22:00, 22:40, 23:30, 00:40.

Larunbata: 16:00, 21:20 (3D), 16:40, 17:20, 18:00, 18:40, 19:20, 20:00, 20:45, 22:00, 22:40, 23:30, 00:40.

Zona hostil
Ostirala: 15:50, 00:50.
Larunbata: 00:50.

Moonlight
Larunbata: 00:50.
Igandea: 22:40.



LABURPENEA

Ballerina

Zuz.: Éric Warin, Éric Summer. **Herr.:** Frantzia-Kanada (2016). **Gidoia:** Éric Summer, Carol Noble, Laurent Zeitoun. **Hizkuntza:** Euskara. **Iraupena:** 89 minutu.

Dantzari izatea amets

1884. urteko Parisen girotutako animaziozko filma da. 'Intocable' film arrakastatsuen ekoizleen azken lana.

Félicie umezurtz-etxe batean bizi da Britainian gurasoak galduta. Bere txiki-txikitako ametsa dantzari profesionala izatea da eta hori lortzeko, edozer egiteko prest dago.

Egun batean, umezurtz-etxetik ihes egitea lortzen du bere laguna Victorren laguntzaz eta Parisera iritsiko dira. Félicie-k dantzari izan nahi du eta Victor berriz asmatzaile ezagun bat.

Argiaren hirian baliabide ekonomikorik ez duenez, Félicie-k beste pertsona baten plantak egin beharko ditu Grand Opera House balleteko eskola elitistan sartzeko.

Eskolan ezartzen den diziplina gogorra eta bere kideen ankerkeria gaintzea oso zaila egingo zaio dantzariari. Victor bere lagunak asko lagunduko dio Parisen. Hau asmatzailea da eta irudimen handikoa, hau dela eta, hamaika abentura biziko dituzte elkarrekin.

Publiko guztientzat egokia da eta ikusleen aldetik oso harrera ona izan du.

BITXIKERIAK



1960. urtean ireki zuten 'Galiza' taberna eta berrogeita hamazazpi urte eta gero, urtarrilaren bian itxi zituen ateak. ANGEL LÓPEZ

Urte ugari olagarroa mimo handiaz prestatzen

Berrogeita hamazazpi urte eta gero, urtarrilaren bian itxi zituen ateak Pablo Mutiozabal kaleko 'Galiza' tabernak. Galiziako jaki eta edarien eskaintza zabalarekin, mimoz tratatu dituzte urte horietan guztietan herritarrak 1960. urteaz geroztik

Maddi Noriega

Nork ez du Alvariño Riveiro ardo kopaz lagundutako olagarroa dastatu Lasarte-Oriako Galiza tabernan? Ziur badela baten bat, baina gehienek probatua izango dute Pablo Mutiozabal kalean orain hilabete gutxira arte irekita egon den tabernan Galiziako jaki tipikoa.

1960. urtean ireki zituen ateak lehenengoz; Carmen Gómez eta Manuel López senar emazteek negozioa ireki zuten unean bertan.

Altsasutik Hernanira etorri ziren bizitzera lehenik, eta Lasarte-Oriara gero. Bizitzan aurrera egin behar eta taberna ireki zuten senar-emazteek.

Bertan jaio ziren Angel eta Karlos semeak ere eta familia osoa aritu da urte horietan guztietan bertan lanean.

Angel semeari galdetu eta oroitzen onak datozkio Galiza tabernaz. Hasierako urteetan, langileei eta orduko "apopiloei", aitaren baratzako barazkiak hartu eta herriko harategi eta

arrandegietan erositako jakiekin tabernan sukaldatutako janaria ematen zieten; "Enpresak bata bestearen atzetik sortzen hasi ziren urte haietan, langileentzako gosariak, bazkariak eta afariak ematen ziren gure tabernan".

Jaki horiekin batera, fama handiko platerak izan ziren kobrezko kazuelan sukaldatutako olagarroa eta urdai egosia.

Angel semeak azaldu moduan, orain hogeita hemezortzi urte hasi ziren olagarroa eskaintzen; "nik hamabost urte nituela hasi ginen olagarroa galiziar erara saltzen eta orduaz geroztik, plater tipikoetako bat izan da orain arte".

Belaunaldia eten

Carmen eta Manuel gurasoetatik hasi, eta horien semeetara irau du belaunaldiak Galiza tabernan eta berrogeita hamazazpi urte luzeetan tabernaren ibilbidea heldu da amaierara.

Iragan urtarrilaren bian itxi zituen bere ateak.

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



7 hitzartutako
ETXEBIZITZA BERRI
LASARTEN

Infografia hau(ek) aldatua
izan daiteke proiektu teknikoetan

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN



DENA BARNE

Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**



943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

